

## EGUZKIA GURTZEA

JUAN SAN MARTIN

Eguzkia gurtzeko ohitura aintzin aintzinako denboretatik gure egunok arte iraun du euskaldunon artean. Arkeolojia aldetik begiratuko bagenuke, gutien gutienez Neolitos garaitik datorkigu ohitura hau. Eguzkiak argia eta beroarekin bizitza ematen digu, eta natura hutsaren gora beherekin bilakatu zen aintzinako gizonak, eguzkia gurtzea gauzarik bidezkoena zela esango genuke.

Aintzinako euskaldunek bitan banatzen zuten urtea: Uda eta negua. Hola aitortzen zigun Azkue berak *Euskalerrriaren Yakintza*-ren lehen tomoko 68. orrialdean. Eta, obra beraren 158/160 orrialdeetan aurkituko ditugu eguzki gurtzearen agiriak, goizean irteran edo naiz arratsalde ezkutatzean. Gorbea ostean gordetzean: "Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naiten". Edo beste honako hauek, Diman: "Eguzkia joan da bere amagana, biar etorriko da denbora ona bada"; eta Azpilkuetan egunsentiz: "Ongo etorri, iduzki xuri".

Eguzkia, iduzkia, iruzkia,... ezagutzen da euskalkirik euskalki, baina bere sustrai zaharra Zuberoan oraindik erabiltzen duten "ekhia"n aurkituko dugu. Eta hontatik hartzen du bere izena hil honek ere, Ifarraldeko euskalki batzuetan, Ekaina. Eguzkia goren aurkitzen den hila. Eta hil honetan izango dira eguzki jaiak ospatzeak ere, Euskal-Herrian ez ezik mundu guzian ere zabaldua den ohitura.

Eguzki gurtze hoiek jentil otoitzak ziren noski, Luzaiden "atsuen otoitzak" eta "otoitz ttipiak" bezala ezagutzen direnak. Jose Maria Satrustegik jaso zituen hoietarik anitz eta Euskaltzain-

diko sarrera hitzalditzat *Luzaideko Otoitz ttipiak* hartu zituen (ikus, "EGAN", 1964, 1-6 zenb., 19/30 orr.). "Herri bat zer den ongi ezagutzeko, zer izana den jakin behar litzake lehenik; edo nolakatu dugun denborarekin", esango digu Satrustegik bere hitzaldiaren haseran, eta adibide askoren berri agertu zigun, ber berak zuzendi jasoak. Kontatzaileetariko batek honela aitortu zion: "Iruzkia ateratzen zeinatu eta esku-zabalari musu eman ez potta igortzen dakogu".

Aita Donostiak ere antzerako gaia erabili zuen 1956an Euskal-tzaindiko solas-aldi batean, "Euskal-Erriko otoitzak" izenez (ikus, "EGAN", 1956, 2. zenb., 34/52 orr.). Bertan zionez, Zuberoan oraindik ere esaten omen da "Ekhi saildua".

Nafarroako Larraunen honako otoitz hau aurkitu zuen:

*Agur, eguzki ederra,  
Jetxirik zerutik lurrera,  
Illuna desterratza  
Tta gu argitten paratzera.*

Eta Luzaiden bertan esaldi polit honi atxeman zion Aita Donostiak: "O Iruzki saildua, emakiguzu illeko ta biziko argia". Lekeition, haurtxoei, San Juan goizean goiz jaikitzeo esaten omen zien: eguzkia dantzaz agertzen zelako. Eta Baxenabarreko Banka deritzan herritxoan jaso zuen otoitza ere oso polita da: "Adio Iguki saintua, bihar arte; bihar xauri (atoz) egun bezala".

J. M. Barandiaranen bilketetan beste argibide asko bilatu genezake gai honi buruz. Ikus bere *Obras completas*-en lehen tomoan 75, 271 eta 383. orrialdeetan. Lehen partean, Euskal-Herriko Mitologian eguzkiak duen hedadura agertuko digu. Deitu ere, "Eguzkibegi" eta "Jainkoaren begi" deitua da Ataunen eta Berastegin. Eta San Juan jaiekin duen loturaz zenbait argitasun ematen digu. Aipatutako obra honen barnean dugu *La religion des anciens basques*, eta bertan ikusten denez, inoiz emakumezko amonaren izena hartzen du; Elosutik Plaentziara bitartean Muskurutxuko mendietan jaso zuenez:

*Euzki amandria  
Badoia amangana,  
Biar etorriko da,  
Denbora ona bada.*

"Amandria", ilargiari deitzea, maizago ezagutzen dena da. Lan berean eta erakutsi dugunaren ondorean agertzen den bezala:

*—Ilargi amandrea,  
Zeruan ze berri?  
—Zeruan berri onak  
Orain eta beti.*

Ataunen eta Ormaiztegin haurrek esan ohi dutenez. Baina, arestian adiarazi dugunez, "Ilargi amandrea"renak oso zabalduak dira Euskal-Herri guzian.

Bietan argia da pertsona izena hartzen duena. Honegatik, Ondarruko koplak bat honela hasten da: "Zeu zara Santa Klara, euskeraz argia..." Eta Mañari partean esaten dutenez, eguzkiaren ama dela Andre Mari, izen honekin Ama Birjina adiaraziz. Baina behar bada, lehen lehenago, Andre Mari, mitologiako Marirekin nahastu zen, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait herritan agertzen den bezala (J. M. Barandiaran, *Obras completas*, I, 383/384 orr.). Eta inoiz santa eta bedeinkatua aurkituko dugu. Adibidez, Errigoitin esan ohi da: "Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana".

Erljio berriagoak zaharragoetarik beti hartzen dute zenbait ideia, gauza eta sineskera, eguzkia gurtze honetan ikus genezakean bezala, eta Ekaineko Suan Juan suak zaharrenetarikoak ditugu, gure egunotara arte irauduenetarik behinik behin.